

Euskal herrietan komentuz komentu

XX. mendearen bukaeran 811 Erlijioso-Etxe zenbatu ahal izan dira Euskal Herrian, Hegoaldea eta Iparraldea batera hartuta (1999). Kopuru izugarria da, baina inondik ere ez ahalegin handiak egin gabe edo ezustean sortu dena.

Kopuru horrek eta horren aurreko mende-etako historiak pisu nabaria izan dute Euskal Herriko iraganean eta gizartean.

Erlijioso-Institutuek (beren moja eta fraide-ekin) eta munduko Diozesiek (beren gotzain, parrokia eta apaizekin) Eliza Katolikoko kleroaren bi aurpegi elkar-osagarri eskaintzen dizkigute. Hala izan da munduan, eta halaxe Euskal Herrian.

Diozesi edo Elizbarrutiak dira tokian tokiko oinarrizko erakundeak, eta, aldi berean, Erljioso-en Elkarteak dira Diozesi eta Estatuaren arteko mugen gainetik beren egituretan Elizaren nazioartekotasuna molde berezian lotzen dutenak (kristau-bizieraz, legeriaz, izpiritualitatez, antolamenduz...). Bestalde, Ordena erlijiosoek, batez ere XI. mendetik aurrera, Aita Santuen gobernu-egitura Mendebaldeko Kristandade osora hedatzeko garrantzi berezia izan dute.

Erljioso-Institutuetako gobernu-egiturak berak segurtatzen du Erakunde horietako bakoitzaren nazioartekotasuna, eta horren barruan, Erljioso-Probintzien eta Etxeen bidez, tokian tokikotasuna ere finkatuta geratu ohi da. Horrela gertatu zen Euskal Herrian ere, adibidez, beneditarren, frantziskotarren edo jesuiten artean.

Horregatik ere Monasterio edo Komentuen (nahiago bada, Erljioso-Etxeen) historia gure herri-herrikoa gertatzen da, hau da, azken bu-

ruan euskal historia eta gizartea ulertzeko ezinbesteko datu nagusi bat.

Euskal Herrian finko

Aurreragoko albiste apurretaraino joan gabe, esan dezakegu 848. urtean ditugula eskura Euskal Herriko zenbait Erljioso-Etxeren lehen albiste formalagoak, Kordobako San Eulogiok urte horretan jaso baitzituen Nafarroako Mendialdeko Monasterioen berriak: Leire, Urdaspal, Usun, etab.

Europa gehiengan gertatu zenaren antzera, X-XII. mendeetan, lehendik bere gisara zeterren mugimendu hori beneditartu egingo da, Monasterio zaharrek San Benitoren Erregela onartzean. Tradizio beneditar horrek, gero, bi adar nagusi izan zituen: klunitarra (X. mend.) eta zistertarra (XII. mend.). Biak ezagutuko ditugu Euskal Herrian ere, eta orain gutxi, Aita E. Ozaetak eman digu euskal Monasterio beneditarren geografia haren berri.

XIII. mendea Eskeko Ordenena (Mendicantes deituena) izango zen batez ere, eta handik aurrera hauek hartu zuten Ordena Erljiosoe-tan nagusitasun nabarmena (XIII-XVIII. mend.): horrela datoz gure artera domingotar, frantziskotar, karmeldarrak, etab. Jesuitak eta beste hainbat Institutu geroago agertu ziren, XVI. mendetik aurrera.

Mendez mende burutuz joan den garapen



horren ondoren, Euskal Herrian Erlijioso-Etxeen sarea handia eta trinkoa izan da XX. mendean, ondoko laukian ikus dezakegunaren araber.

EUSKAL HERRIKO ERLIJIOSO-ETXEAK

<i>Lurraldea</i>	<i>1917</i>	<i>1953</i>	<i>1999</i>
Araba	34	47	82
Bizkaia	128	210	249
Gipuzkoa	131	228	208
Nafarroa	111	206	219
Iparraldea*	99	92	53
Orotara	503	783	811

* Iparraldeko datuak 1880, 1971 eta 1998. urteetakoak dira.

Labur beharrez, oraingoz datuak bakarrik ematen dituzte; izango da aurrerago iruzkinen bat egiteko aukerarik. Eta nola gertatu da Euskal Herri honetan Erlijioso-Etxeen hazkunde hori?

Historia iraunkorra

Ibilera luzeko historia izan da Euskal Herriko Erlijioso-Etxeena, hamabiren bat mendekoa, gizon-emakume askoren borondate handiz egina, herritarrengandik bezala boteredunengandik laguntza ugari jaso dituen eta Eliza iraunkor eta indartsu baten altzoan burututakoa.

Hala ere, ez pentsa gorabeherarik gabea izan denik. Egon dira une goriagoak ere: adibidez, lehen Monasterioak, esan bezala, bortxaz ere beneditartu nahi izan zirenean, XVI. mendean denei erreformak ezarri zitzaizkienean, Erlijioso-Erakunde ezberdinen artean lehia soziala edo pastoralareagotu zenean, Koroaren edo herriagintariaren babesa eta hobespena norgehiagoka segurtatu nahi izan zituztenean, etab.

Tartean eten latz bat ere egon da historia

horretan: Esklaustrazioena, komentuak itxi eta fraide eta mojak kalera bidali zirenekoa. Iparraldean erabateko Esklaustrazio errepikatuak egon ziren (1792, 1880, 1902), eta Hegoaldean fraideei ezarri zitzaizen batez ere Esklaustrazioa (xehetasun gehiagotan sartu gabe, 1834-1875. urteetan jarri dezakeguna).

XIX. mendeko Esklaustrazio hori erabakigarria izan zen: ehundaka urtetan eraikitako komentu-sarea ia osorik deseginda geratu zelako. Baina, hori horrela, Erlijioso-Erakundeen historia ez zen Esklaustrazioarekin bukatu, eta Izanberritzeari (Restauración deituari) ekin zitzaion.

Erlijioso-Erakundeei dagokien honetan, azken mende eta laurdeneko historia izan da gure artean garairik aberatsena, euskal herritar gehienek parte hartu duten araoa, eta emakumeek protagonismo gorena izandakoa. Alde horretatik, IX-XIX. mendeetako historia eta 1875-2000koa oso bestelakoak dira, Institutuen presentzia sozial, kopuru, etxe, zeregin eta baliabideengatik.

Erlijiosoaren presentzia hori, herrietan Erlijioso-Etxeen bitartez bizi izan da, monasterio, komentu edo egoitza izendatu diren tokian tokiko Fraidearte eta Ahizpartearen bidez, alegia. «Komentuz komentu» sail honek euskal iragan horren berri emango du, frantziskotarren komentuetatik hasita, euskal Elizako erlijiosoaren munda ez baita ezagunegia historia barrutik.

Gehiago jakiteko

INTXAUSTI, J. (2004):

El claustro vasco (1875-2000). Donostia.

Galderak eta oharrak: (610273580).

Joseba Intxausti